

Xabier Mendiguren Elizegi

IDAZLEA

Udazken sindromea

Udazken-usaina dago bazterretan, eta ez eguraldiagatik bakarrik. “Oi, zein dan ituna behera behar hau!” esan zigun poetak, eta halako abailaldi bat sumatzen ote den inguruan...

Politikoen artean, abertzaletasun instituzionala aspaldi dabil noraezean eta galdu antxa, beraiek ere sekula sinetsi ez dituzten erronka-jotzeen eta arrastora itzultzeko dei gero eta ozenagoen artean, Jaurlaritzako aginte-makila (eta horrek atzetik dauzkan mauka guztiak) galtzeko aukera inoiz baino errealagoak beldurturik: ez Txiki Benegasek orain hogei urte, ez Mayorrek orain dela hamar lortu ez zutena, Lopezekin bihurtu da posible, ez Patxiren dohainengatik ez herritarren iritzi-aldaketagatik, ezpada ezker abertzalearen ilegalizazioari esker.

Ezker abertzale horixe, berriz, kartzelan eta isilarazita, botereak horretara ohiturik gauzkan arren salatzen jarraitu beharreko egoera antidemokratikoan. Hori salatu eta gero, hala ere, erantsi eta salatu beharko da, halaber, burdinen zama gainetik kendu ezinik dabiltzala, itsuenak eta buruberoenak ere garbi behar lukeenean estrategia zahar horrek, irabazteko inongo aukerarik ez izateaz gain, hondora daramala mugimendu osoa. Loiolan jotako hordago



DANI BLANCO

ustel horretatik ikasiko ote du? Beste hamar urte itxaron beharko ote dugu horretarako?

Baina politikatik kanpo ere ez dut ikusten itxaropenerako tarte handirik. Euskalgintzan inertzia hutsean gabiltzala iruditzen zait, ez ideia berririk ez ilusiorik ez daukagula; Baztarrikaren ekipoak dinamismo handiagoa erakutsi du, dudarik gabe, baina ez dakit ba, zelifonean bildutako txepelkeriatik harago joateko ahalik ba ote duen; gure gizarteak eskatzen digun mailatik behera bagenbiltza gaitz erdi, baina gizartea bera berdintsu barruntatzen dut, kemen falta erabatekoan, ekonomiaren gainbeherak noraino joko gaituen beste kezka askorik gabe. Baietz aurtan, Durangoko Azokaren inguruan, krisi hotsak zabaldu euskal kulturaren ere.

Urteko zikloetan, udazkenaren eta neguaren ostean udaberria loratzen da, ezinbestez eta halabeharrez. Bizidun ororen zikloan, berriz, iristen da beheraldi bat, ez egunsenti berri baten iragarpen baizik eta akaberaren aurrekari izango dena. Zer udazken mota bizi dugun ez dago esaterik, herrien patua ez baitago izarretan idatzia, guk geuk idazteko zain baizik. Poeta harexek esan zuen bezala, “nik ez nahi eguna bihurtzerik gau”. ■



Politikatik kanpo ere ez dut ikusten itxaropenerako tarte handirik.

Euskalgintzan inertzia hutsean gabiltzala iruditzen zait, ez ideia berririk ez ilusiorik ez daukagula



TXANDAN

Andoni Mujika

Kooperatibak



Euskal kooperatiben iparrorratza imajinatu dut eta Joxe Azurmendiren “Arizmendiarrietak etorriko diren ideologiak pentsatzeko klabeak ematen dizkigu: pertsona kooperatiboago bat gizarte kooperatibizatuago batean. Bere buruaren, bere erakundearen, eta batez ere, bere hezkuntzaren jabe izango dena” aipua gogoratu zait. Jarrera hau ez da arrotza kooperatibentzat. Beren burua gobernatzeko ohituta daude. Dena den, zuhur ibili behar dute. Etorkizunari bermez helitzeko, badirudi, motibazio ontziak kalitatezko gasolinaz bete beharko direla, eta ez, erdipurdiko erregaiz. Baina tentaldian egon daitezke, saldoko erregaiekin

konformatzeko arriskuan. Erremedio iharrak erosteko, alferriko gastuak egiteko. Euskal mugimendu kooperatiboak, Mondragoekoak, jakin izan du gizartearen erdigunean egon izan diren kezka nagusiekin bat egiten, erakundearen eta pertsonaren ametsen arteko sintonia aurkitzen. Kooperatibismoaren zentzuaz –norantz eta zertarako– gabiltza, ez igandeko plana non egin erabakitzen. Horretarako geure burua auto-mugatu gabe fin pentsatu behar dugu. Eta argi gure erakundeetan zabaltzen ari diren terapiekin. Manualen eta *management*aren errezetekin adi. Kontuz hizkuntzaren eta komunikazioaren kilker gogaikarriekin. Osasunaz dihardugu, ez kuranderoez. ■